

# AUTOEBALUAZIOZKO PRAKTIKA

## DATU BASE BATEN DISEINUA ETA USTIAPENA

### FASE I – Proposamenen aurkezpena

Negoio ideia bat izango balitz bezala, datu base batetan biltegitratuko duzu gai edo “asunto” bat proposatu behar duzu, ondorengo ataletan (fase II eta fase III) ideia hau praktikara eraman ahal izateko.

**Oharra:** oso esplizituki definitu behar duzu datu basearen domeinu aplikazioa, ondo egongo legoke datu baseak bildu behar duen informazioa lortzeko non edo zertan dokumentatu edo “inspiratuko” zaren azaltzea.

### FASE II – Datu basearen azterketa eta diseinua

Aurreko fasean azaldutakoaren arabera, datu basearen azterketa sakona txosten batetan azaldu behar duzu ondorengo informazioa eskainiz:

- Antolatu beharreko datuen egitura kontzeptuala planteatuz.
- Domeinu aplikazioaren definizioa (datu basearen helburuak, garrantzia, hasierako espezifikazioak, betebeharrak, etab.)
- Erabili beharreko fitxategien deskribapena (**gutxienez 5 fitxategi**) eta euren ezaugarrien definizioa.
- Datu basearen eskema kontzeptualaren diseinua.
- Datu basearen integritate erregelen definizioa.
- Datu basearen eskema erlazionalaren diseinua, hau da, fitxategien arteko loturen adierazpen grafikoa aurkeztu. Horretarako, gako nagusi zein atzerritarrak izango diren atributuak identifikatu behar dira. Adierazi behar dira ere fitxategien artean ematen diren lotura motak eta justifikatu integritate erreferentziala propietatea definitzeko beharra edo ez beharra.

#### Oharrak:

1. Aurreko informazio guztia eta hirugarren atalekoa ere, WIKI batetan idatzi behar da
2. Datu basearen adierazpen grafikoa mapa kontzeptualen bidez adierazi behar da.

## **FASE III – Datu basearen eraketa eta galdeketa**

Access datu base kudea sistema erlazionala erabiliz, ondorengo eginkizunak gauzatu:

### **1. Datu basearen eraketa**

Fitxategi bakoitzak dituen atributuak eta euren propietateak definitu behar dira (tamaina, sarrerako maskarak, formatua, egiaztatze erregelak etab. definituz).

Datu baseak gutxienez ondorengo baldintzak bete behar ditu:

- 20 atributu gutxienez izango ditu datu baseak eta mota desberdinetakoak izan behar dute (testua, zenbakizkoa, url esteka, OLE objektua, etab.)
- Egiaztatze arauak, gutxienez hiru.
- Sarrerako maskarak, gutxienez hiru.
- Datu basearen edukia, gutxienez 50 erregistrotakoa.

### **2. Datu basearen galdaketa**

QBE eta SQL lengoaiak erabiliz, kontsulta mota desberdinak exekutatu behar dira (gutxienez 15 kontsulta desberdin):

- Mota desberdinetako kontsultak: taula berriak sortzeko kontsultak, datuak eguneratzeko kontsultak, erreferentzia gurutzatutako taulak edo taula dinamikoak, etab.
- Hautazko kontsultak (klasean ikusitako funtzioak erabiltzen dituztenak: funtzio erantsiak, datazko funtzioak, SiInm funtzioa...)
- Gutxienez azpikontsulta bat.

### **3. Datu baseko informazioa azaltzen duen txosten bat ala nola datuak eguneratzeko formularioren bat prestatu behar da gutxienez.**

Oharra: egindako kontsulta, txosten zein formularioren enuntziatua eta helburuak WIKI gunean deskribatu behar dira, egilearen izena eta deiturak adieraziz.